

Dalid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Apalogia (edo apalaren apologia)

Mendizale arruntak eta pretentsio handirik gabeak –esan nahi baita, neronek– Himalaiako espedizio baten inguruko proiektzioa ikusten duenean, nekez aurkituko du mendira joaten jarraitzeko benetako motibazioa. Niri behintzat handiegi egiten zait, urrutiegi. Ez daukat 8.000 edo 7.000 metroko mendia igotzeko ahalmen fisikorik edo teknikorik. Txundituta utziko nau proiektzioak, akaso, baina ez nau mendira hurbilduko. Nire eskura ez dagoen zerbaite da, eta ez nau bereziki motibatzen.

Nago, euskaldunon kasuan ez ote dagoen batzuetan gauza bera gertatzeko arriskua. Azalduko dut: sarritan esan dugu kalitateko hiztunak behar ditugula erreferentzia gisa. Nik neronek ere esan eta idatzi izan dut hori bera, hala pentsatzen dudalako. Hizkuntza ongi eta egoki erabiliko duten hiztunak behar ditugu hizkuntza-komunitatearentzat erreferentziatzeko diren kokaguneetan (kazetariak, politikariak, kultur-ekoizleak, idazleak, pertsona ezagunak oro har...).

Horrela eginez gero, ordea, eta erreferentzia gisa horiek eta horiek bakarrik gehiegi markatuz gero, horien hizkuntza-jarduna eskuraezin irudituko zaio askori, batez ere hizkuntzarekin trakets antza dabilen askori. Eta eredu “onegi” horrek, mendizalea Himalaiako ibiltariak bezala, agian ez du eus-



KARLOS CORBELLA

kalduna euskarara hurbilduko eta euskaraz egitera motibatuko.

Alegia, eredu oso on eta hiztun oso tre-beez gainera, baliteke hizkera arrunt eta luzimendurik gabeko ereduak ere beharrezkoak izatea. Eta ez du horrek esan nahi duintasunik gabeko ereduak izan behar dutenik. Ez naiz euskañolaren eta hizkera baldarraren apologia egiten hasiko (ez behintzat gaiari buelta gehiago eman gabe), baina mendizaleak esperientzia eta ibilbide samurragoak

behar eta estimatzen dituen bezala, akaso hiztunak ere lorgarritzat joko dituen erregistroak eta hizketa-moldeak ere baloratuak eta onargarriak direla sentitu behar du. Hitz-gakoa, akaso, “naturaltasuna” da. Alegia, hiztun bikainaren eta jasoaren labela izan gabe ere, natural, eroso –eta duin?– agertzen den hiztun arruntaren eredu.

Hortik abiatuta, agian ez da hain zaila inoiz are “hiztun txarraren” ereduaren beharra eta komenigarritasuna ere zurtzera iristea. Ez dut nik halakorik eginen, ez bainaiz horrelako ondorioetara iritsi, baina uste dut, bestalde, hiztunak erabilerara erakartzeko akaso eraginkorragoa dela euskararen erabilera apala, naturala, eta eroso aditzea, –aparteke distirarik gabekoa bada ere– jasoaren jasoaz pedantea eta nekosoa bihurtzen den hizkera kargatua baino. ■

«
Hitz-gakoa, akaso, ‘naturaltasuna’
da. Alegia, hiztun bikainaren eta
jasoaren labela izan gabe ere,
natural, eroso –eta duin?– agertzen
den hiztun arruntaren eredu
»

TXANDAN

Joseba Barandiaran

Itun berrietan



JEL. Jaungoikoa Eta Legezaharra; itun berria eta forua, edo. Ehun

urte pasa irauin ditu, azken urtetan EAeko boterean. Nik esan gabe daki EAJk aurrera egiteko zer behar duen. Euskal gizarteari itun berrietua eskaini behar omen dio. Zer ote? IEI? Itun berrietua Eta Internet, apika? Garaiak aldatu egiten dira eta! Kontua da alderdi sozialistak (Espainiako PSOEn sukurtsal hutsa den horrek, alegia) aurre hartu diola azken bozetan EAJri: esan gabe doa, Nafarroan eta, Euskal Erdian ere bai, baina baita Erdi Erdian ere, hau da, Bizkaian! Sozialisten

nagusitasun hori euskal erakundeetan islatzea, ez da Innobasquek sustatuko duen berrikuntza mota baina, ziurrenik, lugorria bezain onuragarria litzateke Euskal Erdirako, EAJ bera ez den edonoren begietara. Besterik da, uste hori, zabala izateagatik bakarrik, ustelduko ez denik pentsatzea. Pachi López ez baita Patxi Lopez. Baina mitxelinak alderdi gehiagotara barreiatuko badira, boterean zinezko alternantzia behar beharrezkoa da. Hala eta guztiz ere, aizue, aurtengo Aberri Egunean sekula baino ikurrina gutxiago ikusi dut gure herriko balkoietan. Elurratetik izango zen, noski. Zergatik bestela? ■